


INFLAZIOA

Inflazioa %2,3ra jaitsi zen urtarrilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %2,3koa izan zen urtarrilean, aurreko hilean baino sei hamarren gutxiago. Beherakada horren arrazoi nagusia energiaren merkatzea da (-%2,4) Hori dela eta, 2025eko urtarilaren aldean, hondar-inflazioa oso neurritsua izan zen (%1,2). Aitzitik, azpiko inflazioak %2,6raino egin zuen gora, bai zerbitzuen bai elikagaien garestitze handiagoak bultzatuta.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%85,3)	3,2	2,6	2,6	2,1
- Elikagai landuak (%14,1)	4,6	2,1	2,9	0,4
- Industria ondasunak (%18,5)	1,2	0,9	-0,4	-0,1
- Zerbitzuak (%52,7)	3,5	3,4	3,6	1,8
Hondar inflazioa (%14,7)	2,6	5,2	1,2	0,2
- Landu gabeko janariak (%6,8)	4,0	6,8	6,3	0,4
- Energia (%7,9)	1,0	4,1	-2,4	-0,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Urtarrilean, elikagaiek eta zerbitzuek prezioek tentsiopean jarraitu zuten Euskadin. Produktu freskoek erosketa saskiaren garestitzeari eutsi zioten, eta zerbitzuetan, batez ere jatetxeetan eta ostatuetan, inflazio mailak altuak izan ziren, aseguruetan eta finantza jardueretan apaltze joera txiki bat egon bazen ere. Inflazioa gehien moteldu zuten taldeak jantziak eta oinetakoak (-%3,9) eta etxebizitza eta hornidurak (-%1,6) izan ziren, elektrizitatearen garestitze txikiagoari

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



eta petrolioarekin lotutako erregaien merkatzeari esker. Garraioak argi eta garbi murriztu zuen bere erritmoa %0,2raino. Aitzitik, jolas-jarduerak, kirola eta kultura %1,8 hazi ziren. Elikagaien eta zerbitzuen beheranzko erresistentziak zaildu egiten du oraindik azpiko inflazioa %2,0ra iristea, baina etxebizitza, garraio eta industria ondasunen zuzenketa handiak inflazioa mailarik baxuenean jarri zuen 2024ko urriaz geroztik.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,3	2,3	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,9	3,0	2,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,5	4,5	2,8
Jantziak eta oinetakoak	-3,9	-1,9	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,6	2,7	0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,0	0,8	0,3
Osasuna	2,0	2,2	2,6
Garraioa	0,2	-0,1	0,4
Komunikazioak	-0,8	-0,1	-1,2
Aisia eta kultura	1,8	1,9	2,2
Hezkuntza	2,3	2,6	3,6
Jatetxeak eta hotelak	4,8	4,5	3,6
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,8	4,7	4,1
Zaintza pertsonala, gizarte-babesa eta askot. ond. eta zerbitzuak	2,0	3,0	2,8

Iturria: INE, eta Eurostat.